

# Azkue: gizona eta garaia



Jose Antonio **Arana Martija**\*

*Aita olerkaria eta ama herri kulturaren aditua, asto ikasi zuen gurasoengandik. Lekeitio jaio-terria da artikularen ardatza. Hango musikariak eta musika giroa aipatzen da. Euskal katedra dela eta, Unamuno eta Arana azaltzen dira. Iparraldeko idazleak ere badira. Azkueren ikerketak eta argitalpenak ukitzen dira. Eta euskaltzaindiaren sortzaile izanik egin zuen lana. Heriotzatik 50. urteburuan egiten zaion omenaldi xumea da.*

*Giltza-Hitzak: Azkue eta Lekeitio. Katedra eta euskalzaleak. Olerkiak. Ikerlanak. Ekanduak.*

*De padre poeta y madre conocedora de la cultura popular, aprendió mucho de ambos. Lekeitio, su pueblo natal, constituye el eje de este artículo. Se da cuenta de los músicos locales y de su ambiente musical. En torno a la cátedra de euskara, parecen Unamuno y Arana. También aparecen escritores de Iparralde. Se tocan las investigaciones y publicaciones llevadas a cabo por Azkue. Y también el trabajo que desarrolló como fundador de Euskaltzaindia / Academia de la Lengua Vasca. Se trata de un humilde homenaje en el 50 aniversario de su muerte.*

*Palabras Clave: Azkue y Lekeitio. La cátedra y los vascófilos. Poesías. Trabajos de investigación. Costumbres.*

*De père poète et de mère ayant de bonnes connaissances de la culture populaire il apprit beaucoup de chacun d'eux. Lekeitio, son village natal, constitue l'axe de cet article. Il remarque les musiciens locaux et leur ambiance musicale. En ce qui concerne la chaire d'euskara, apparaissent Unamuno et Arana. Apparaissent également des écrivains d'Iparralde. On aborde les recherches et les publications menées à bien par Azkue. Ainsi que le travail qu'il fournit en tant que fondateur d'Euskaltzaindia/Académie de la Langue Basque. Il s'agit d'un humble hommage pour le 50ème anniversaire de sa mort.*

*Mots Clés: Azkue et Lekeitio. La chaire et les bascophiles. Poésies. Travaux de recherche. Coutumes.*

---

\* Euskaltzaindia. Plaza Barria, 48005 - Bilbo

Julio Urkixo eta Resurreccion Maria Azkueren heriotzetatik berrogeita hamargarren urteurrenak ospatzen ari gara iaz eta aurten. Biena batera gogoratuz, XV. Nazioarteko Biltzarra antolatu du Euskaltzaindiak, Euskalduna Jaurregian, igaro den irailean, biak izan baitziren, Eleizalde eta Campioneekin, lehen lau euskaltzainak instituzio hau 1918an sortu zenean. Baina Azkue lehen euskaltzainburua izan zelako eta gaur Lekeition bilduta gaudenez, lekeitiarra zelako, eman diezaiogun lehentasuna azken honi hitzaldi honetan.

Iragan azken urtean hiru aldiz oroitu dugu Azkue Lekeition: 2000.10.15ean, Galeuskak udaletxean egin zuen bileran, idazle lekeitiarrak, labor bano ez bazen izan ere, gogoratu genituen. Aurten, otsailaren 22an, Euskaltzaindiak hemen eratu zituen Barne Jardunaldietan, berriz izan zenuten aukera idazle lekeitiarrei buruz zertzeladak entzuteko. Egun horretako egitarauaren arabera, nik ere hemen berba egin behar izan nuen, baina suhi baten istripu larriak ez zidan horretarako paradarik eman. Dena den, nire hitzaldinoa prestatua neukan eta gero *Eusker*a agerkarian kaleratu nuen (2001, I, 227-230). Gaur daukat aukera zuon aurrean hirugarrenez agertzeko, oraingoan hitzaldi luzeago baten, Azkue euskaltzalea, gizona eta garaia aztertuz. Eguntan beste berbaldi batzuk ere ematen dira udaletxe honetan, Udalak eta Eusko Ikaskuntzak antolatuak. Azkue ikuspegi askotik aipatua izango denez, nik zeharbidetik jo beharko dut, izaera eta gertaera ez ezagunak edo gutxi ezagunak zuon adimenera ekarriz. Badira ikerle eta idazleak Azkueren berri eman digutenak. Denak eta gehiago ikusita prestatu nuen biografia bat, elebiduna, Bizkaiko Aurrezki Kutxak, 110 orrialdeko liburu batetan kaleratu zuena 1983an. Hamar urte geroago, 1993an "Bidegileak" bilbuan Azkueren biografia laburragoa argitaratu zidan Eusko Jaurlaritzak. Lekeitiar ospetsu honen bizitzaren ildo jarraitzeko hor dituzue ba argitaratutakoak kontsultagai.

Dakizuenek, Resurreccion de Jesus Maria de las Nieves Azkue Aberasturi Lekeition jaio zen 1864.eko abuztuaren 5ean, goizaldeko ordu bat eta laurdenetan. Heriotzaren 50. urteurrena orain ospatzen dugun eran, jaiotzaren mendeurrena ere ospatu zen 1964an eta udaletxe honetan egin ziren ekintza akademikoetatik aparte, bi sari sortu zituen udalak bi gai hauek aztertzeko: Azkue lexikografo eta Azkue folklorista. Irabazleak honako hauek izan ziren: Koldo Mitxelena eta Juan Thalamas Labandibar. Lehenak *Estudio sobre las funciones del Diccionario de Azkue* liburua aurkeztu zuen eta bigarrenak *La mentalidad popular vasca según Resurrección María de Azkue*. Bi liburuak argitaratuak dira. Jaiotzaren mendeurren az ari garenez, derrigorrezkoa iruditzen zait gurasoak aipatzea, gure Resurreccionen bizitzan eragin handia izan zutelako: Eusebio Maria lekeitiarra eta Maria Karmen mundakarra. Biekin zerikusirik dauka, omenaldien inguruan gabiltzanez, 1936.eko ekainaren 28an Lekeition antolatu zen VII. Olerti Egunak. Azkue aita-semeari eskainia izan zen eta Telesforo Monzonek bere hitzaldian Maria Karmen Aberasturi oroitu zuenean Azkue semeak negar egin zuela diote kronikak. Ahaztu baino lehen esan dezagun Eusebio Maria 1813.eko apirilaren 13an jaio zela eta 1873.eko azaroaren 11an hil. Maria Karmen Mundakan jaio zen 1835.eko urtarrilaren 23an eta Bilbon hil 1913.eko otsailaren 10ean.

Mundakan itsas-gaietan irakasle zen Eusebio M. Azkue, olerkaria gainera, Lekeitiora itzuli zen 1863an lanpostu berbera jaioterrian irabaziz. Urte berean jaio zen Vouvray herrian (Frantzia) Charles Bordes musikaria, gero Azkue Parisko Schola Cantorum-era ikasten eramango zuena. Eta Lekeitiori dago-kionetik, 1863an jaio zen hemen Jose Luis Zapiain Uribe musikaria, Donos-tiatik etorritako Jose Prudentzio okinaren semea. Hamar urte geroago, 1873an, olerkari lekeitiarra hil zenean, jaio zen Buenaventura Zapirain Uribe, hau ere musikaria, *Txanton Piperr* (1899) eta *Anboto* (1909) operen egilea.

Olerkari baten semea izan arren ez zuen Resurreccioneek literatura mota hau sarritan erabili. *Euskalzale* aldizkarian argitaratu zituen dozena erdi olerki (1897): “Agur Maria baten indarra”, “Gaua”, “Jesusen Biotzari”, “Mirua eta amilotsa”, “Ni enaz ilgo”. Begoñako Ama Birjina buruntzatu zutenean (1900) olerki bat eskaini zion, *Euskal Erria* aldizkariar argitaratua (1900, 471) eta ene ustez Buenaventura Zapirainek aipatu ospakizunetarako egin zuen ere-serkiaren testua gure Azkuerena zen. “Hispalis zarra” ere hor dugu (*RIEV*, 1909) eta argitara emandako azken bi hauek: “Atzerritik” (*Euskal Esnalea*, 1912, II, 73-74) eta “Pozari” (*Euzkadi*, 1914, 166). Lehenean, ama du gogo-an azken ahapaldietan:

Aur nintzanean nuen bezela,  
gabero lotarakoan,  
oraino ere, lerre gozotan,  
ama darabilt gogoan.

Aur nintzanean zuen bezela,  
seaskondoan gabero,  
ama maiteak oyu egin bezait  
“u-au-atšoa lo ta lo”

Eta bigarrena ez da berak ekoiztutako fruitua, itzulpena baizik: Johann Christoph Friedrich Schiller (1759-1805) idazle alemanarena da, 1785ean argitaratua eta mundu zabalean Ludwig van Beethoven musikariak IX. sinfonian ezagutzera eman zuena, alaitasun eta anaitasunera gonbidatzen gaituen Europako ereserkia, hain zuzen. Bartzelonako Orkestra Sinfonikoak Bilboko Euskeria Orfeoiarekin eman behar zituen kontzertuetarako moldatu zuen Azkuek itzulpen hau. Europako Batasunean herri gisa sartzeko gauden une honetan, euskarak eta Euskal Herriak aspaldidanik badaukatela himnoan ere beraien presentzia adierazten dugu Azkueren testu honen bidez. Baina hobendun agertzen zaigu Azkue zeren, euskara eta alemana ondo zekienak, jendetzari zegokion “milionen” hitza nola itzuli ote zuen “diru-metak” berbarekin? Milioika gizabanakoak zenbatzen zituen Schillerrek pozaren bidean eta ez dirutzak Azkuek ulertu zuen moduan. Aliquando quoque dormitat Homerus!

Bereak ez ezik, Eusebio Maria aitarenak argitaratu zituen Resurreccioneek *Parnasorako bidea* liburuan (1896). Askoz lehenago argitaratu zituen Jose Manterolak *Cancionero Basco* bilduman (1877-1880) lekeitiarrarenak, eta urte bete geroago (1897) Bartolome Ertzilla, durangarrak, baina egilearen izena aipatu barik, *Colección de Cantos Vizcainos* izenburuko koadernoetan.

Aitaren izena agertu barik kaleratu zirenean koaderno horiek, hurrengo urteko apirilaren 12an gutun bat idatzi zion Azkuek Ertzillari protesta biziz azalduz eta kaleratzeko ziren koadernoetan aitaren izena agertzea eskatuz. Ez duran-garrak ez Dotesio inprimatzaileak ez zioten kasurik egin.

Ordurako Azkue bera ere kantuak biltzen hasi zen, gutxienez, berak dioskunez, 1884an hasita. Hain ezaguna dugun “Basa txoritxu” *Bein da betiko* (1893) liburuan ematen digu. *Euskal Izkindea* (1891) edo gramatika eta aipatu liburu hori Euskal Katedrako ikastaldietarako prestatu zituen. Ondo daki-zuenez, katedra horretarako Azkue jauna izan zen izendatua 1888an, Migel Unamuno eta Sabino Arana baztertzuz. Lehiaketaren historia luzea da eta gaur hemen eman ezina. Euskaltzaindiak katedraren mendeurrena ospatu zuenean idazlan luzea argitaratu nuen (*Euskera*, 1988-2, 361-389) eta hara jo beharko du xehetasunak nahi dituenak. Baina ikus ditzagun Unamuno eta Aranaren erreakzioak.

Aspalditik ezagutzen zuen Azkue Unamunok. Auzokideak ziren lekeitiarra 1879an Bilboko Institutura batxilergoa egitera etorri zenetik, 1881.eko ekainaren 26an ikasketak bukatu arte. Azkueri katedra atxiki ziotenean, ez zuen Unamunok protesta txikienik ere egin; Madrilen zegoen eta ez zuen euskarazko irakaskuntza horretan jarduntzeko asmorik. Hurrengo urtean bai haserretu zela, 1889.eko martxoaren 10ean Antonio Trueba, Bizkaiko Diputazioaren artxibozaina hil zenean, Joakin Mazas Orbegozo izendatu zutenean, bera baztertzuz. Azkuerekin, ostera, ondo konpontzen zela dirudi, Gernikako Euskal Jaietan, 1888.eko irailean, biak egon bait ziren euskal olerki saria erabakitzeko mahaiari, zeinetan Felipe Arrese Beitiari eman zioten lehena, Gernikako Arbolari zuzendutako “Gure Bandera” olerkiagatik. Benetan haserretu zen Azkue Unamunok Bilbon, 1901.eko abuztuaren 26an, euskarari hiletak egitea proposatu zuenean. Asko izan ziren orduan Unamunoren aurka jarri zirenak, tartean Telesforo Aranzadi, haren lehengusua, Bartzelonako unibertsitatean katedraduna zela handik Baionako Euskaltzaleen Biltzarrera bidalitako gutunean adierazten zuenez.

Sabino Arana Goiri ere Bartzelonan zegoen euskal katedraren erabakiaren berri jakin zuenean. Honen portaera ere txalogarria izan zela esan dezakegu zera jakinik: irakasletza berak eramango zuela eta zegokion soldata Azkuek kobratuko. Hurbiltasun gehiago izan zuen Azkuek Aranarekin, Unamunorekin baino, eta hortik sortu ziren bien arteko haserre eta atsekabeak. Sabino Aranak bi mundu edo gai jorratu zituen biziki: euskara eta politika. Bietan topo egin zuen Azkuerekin. Euskararen arloan, urte berean, 1896an, kaleratu zuten biek ortografia baturako proiektua. Hendaian eta Hondarribian 1901ean egingo ziren biltzarretarako gai nagusia gertatu zen ortografiarena, eta Akademia sortzeaz ere zerbait egin behar zela iparraldeko eta hegoaldeko euskaltzaleen artean argi zegoen. Baina Hendaian gauzak argi geratu ez zirenez, bigarren biltzarrerako bi talde eratu ziren: Adema, Gilbeau, Arana eta beste batzuk alde batetik, zeinek proposatzen zuten biltzarrean egon ez arren, botoak baliagarriak zirela; eta Arbelbide, Broussain, Azkue eta beste batzuk proposamen hori onartzen ez zutenek, presentzia ezin bestekoa zela

eskatzu. Ordezkatzearen bidez botoa izango zutenek 320 ziren, baina Azkuek esan zuenez, onartezinak ziren Elantxobe, Bermeo eta Bilboko “tar-dunen” botoak. Politikan ere urrun zeuden abandotarra eta lekeitiarra. Broussaini idatziriko gutun batetan esaten zuen Azkuek: “Euskadiren aita Sabiño gizon andia da, baina umekeri askogaz anditua” (1901.12.19) Geroago esango zuen: “Nire herria ez da Euzkadi, Euskalerrria baizik”. Dena den, karlista izatetik abertzale girora heltzea Aranari eskertzen zion: abertzale naiz Sabinori esker (1916).

Bilboko euskal katedraren inguruan ibili gara azken lerroetan. Ordutik Euskaltzaindia sortu arte (1918) hogeita hamar urte iragan ziren bitartean, Azkueren bizitzaren erdiko herena. Hirugarren eta azken herenean emaitza asko eta baliotsuak erdietsi bazituen ere, bigarrenekoak dira garrantzitsuenak, ene ustez. Katedra irabazi baino lehen hasi bazen ipuinak, ohiturak, kantak eta abar biltzen (1884), geroko urteetan zabaldu zuen bere ikergunea. Euskara eta musika aitzakia zirela, hainbat ezagutze eta harreman izan zituen mendearen azken urteetan. Adibide bat emateko, eta Lekeition gaudenez, aipa dezagun hemen ezagutu zuen adiskide sendo eta zindoa, Bizente Goikoetxea musikaria. Alejandro Valdes Goikoetxea, hau ere musikari lekeitiarra, jaio zenean (1883.2.9) hemen zegoen Bizente jaioberriaren osaba eta aita-bitxi bataiatu zutenean. Azkuek meza berria eman zuenean, 1888.eko irailaren 29an, Lekeitionik alde egin zuen Goikoetxeak Valladolidera joateko, apaiz ikasketak burutzera. Eta apaiztu zenean, meza berria Lekeition eman zuen Bizente Goikoetxeak, Azkuek sermoia euskaraz, nola ez, eskaini ziolarik. 1891.eko uztailaren 19a zen. Gero ere euskarazko sermoi asko egin zituen Azkuek Lekeition. Baina bitxia da Pierre Broussain adiskideari Toursetik 1904.eko uztailaren 31n idazten diona: Lekeition, abuztuko Ama Birjinaren egunean “predicaré en lequeitiano cerrado”. Hamar urte lehenago, *Bein da betiko* irakurra erabili zuen azpieuskalkia izan ote zen sermoi honetan erabili zuena?.

Katedrako ikastorduetatik kanpo asko ziren Azkuek hartu zituen eginbeharrak eta leporatutako zamak. Ez zeukan urrun joaterik Bilbotik hurbil izan ezik. Beraz hertsia zen jorra zezakeen adiskide eta laguntzaileen arloa. Donibane Lohizunen 1897.eko abuztuan antolatu ziren Euskalerrriko Tradizioaren Jaiak eman zioten iparraldeko euskaldunak eta euskaltzaleak ezagutzeko aukera paregabea. Han ezagutu zituen, beste askoren artean, Ducéré, Webster, Haristoi, Sallaberri, Larrieu, Arbelbide, Darricarrère... eta aurrerantzean Azkuerekin lotura handia izango zuten Broussain eta Charles Bordes musikaria. Adiskidetasunaz eta euskararekiko elkarkidetasunaz baliatuz, Broussain, Arbelbide eta Darricarrère Bizkaia ezagutzera ekarri zituen 1899an, Bilbon eta Lekeition egun batzuk pasaraziz. Gonbidatu hauen esker onak zabaldu zizkion ateak iparraldean hainbat harreman izateko. Orduan bai hasi zela Azkue Euskal Herri osoa ikuskatzen edo zituen proiektuetarako plangintza orokor bat asmatzen.

Hiztegia eta Kantutegia izan ziren lehendabizi burutu nahi izan zituen proiektuak. Hitz eta kantu bila hasi zen esparru gero eta zabalagotik, iparral-

dean ere sartuz. Bazituen hemengo euskalkien hiztegiño eta hiztegi-gileak Euskal Herri osoko hiztegia hornitzeko beste. Bestalde, eta bide batez, kantu zaharrak biltzeko aukera ere bazuen egiten zituen ibilaldietan. Hegoaldean Juan Carlos Gortazar izan bazen animatzailearik sutsuena, Sallaberri eta Bordesek, horretan ohituak, izan ziren falta zuen bultzadaxoa eman ziotenek kantu bilketan jarraitzeko.

Baina euskararekiko arazoetan, lexikoa eta ortografia ez ezik, aditza eta morfologiaren beste ikuspuntu batzuk finkatzea eta hizkuntza batura heltzeko bidea luzea zen. Bakoitza bere bidetik ibiliez gero, lortu ezinezko helburua. Horretarako Akademia baten beharra ikusten zuten Azkuek eta beste euskaltzale askok. Ezagutzen zituen lekeitiarrak Aizkibel eta Artiñanok egindako proposamenak eta Antoine Abadiak zeukan gogoaz ere zerbait zekien. Horregatik J.C. Gortazar adiskidea Bizkaiko diputatua hautatua izan zenean (1900.eko apirillean), beregana jo zuen Akademia sortzeko proiektuarekin. Iparraldean ere sortua zen kezka berdina eta 1900.eko apirilaren 14an idazten dio Azkuek Broussini Abadiaren jauregian bildu dela honen alargunarekin, Akademia sortzeko prest zegoela andre hori diru-laguntza emateko eta asmatu duten erakundearen zirriborroa ere ematen dio. Handik hilabetera berriz dago Azkue Hendaiaiko Abadiaren jauregian euskal liburutegia arakatzen eta Akademiaz hitz egiten. Hendaian bertan egingo den biltzarrerako badago, beraz, gai garrantzitsua: Akademia sortzea. Baina ikusi dugunez ez zen ezer gauzatu. Bizkaitik dator berriz beste bultzada bat, Azkuek eraginda. Toursen Hiztegiaren lehen liburukia kaleratu ondoren (1905) Bizkaiko Diputatu Nagusia den Adolfo Gabriel Urkixo, Julio adiskidearen anaiari, proposatzen dio bigarren liburukiarekin jarraitu beharrean prest legokela lan hori alde batera utzi eta Akademia sortzeko ahalegin guztiak egiteko. Baina aurre-proiektu hau ere bertan behera geratu zen. Hamairu urte iragan ondoren, 1918an sortu zen Euskaltzaindia, Bizkaiko diputatuak ziren Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu proposamena egin ondoren. Azkue lekeitiarra izan zen lehen euskaltzainburu hautatua. Abadiaren jauregiko bilerak aipatu ditut ez direlako ezagunak Akademia sortzeko historian.

Kantu bilketaz ezagutzen denari zerbait gehitu behar diodala uste dut, Lekeitiori dagokiolako esango dudana. Diputazioek "Vox populi" izenarekin Azkuek aurkeztu zuen kantu bilduma saritu zuten 1915ean. Bildutako guztiekin bi argitalpen agin zituen Azkuek: bata, bederatzi tomotan, hautaturiko 200 kantuekin, ahots eta pianorako moldatuak, 1921-1924 bitartean argitaratuak; bestea 1001 kantuekin, laguntzarik gabe kantatzeko, hamaika tomotan 1922-1925 bitartean argitaratuak. Azken bilduma honetan 30 edo Lekeition hartutakoak dira. Xehetasunak nahi dituenak jo beza kantutegiaren azken tomoan agertzen den aurkibidera, han ematen baitzikigu Azkuek kantatu ziotenen izenak eta kanta bakoitzak argitalpenean daraman zenbakia. Baina argitaratu zituenak bildutakoen herena baino ez dute betetzen, hiru milatik gora baitira Azkueren artxiboan gordetzen direnak.

Hauetako bat da, esate baterako, Wilhelm Humboldték Lekeition 1801.eko maiatzaren 21ean entzun eta idatzi zuena eta Azkuek Berlingo

Biblioteca Nazionalean kopiatu zuena: Lekeitioko neskatxek goizaldian kantatzen zutena da Azkuek 1940an *Ortzuri* operan gehitu nahi izan zuena. Opera hau aipatu dugunez, besteari, *Urtori* hain zuzen, dagokion zerbait esan beharko nuke: diru galtze handiak izan zituen Azkuek 1914an estreinatu zutenean eta zorra kitatzeko adiskide aberatsengana jo zuela uste genuen. Gero jakin dut ez zela hala gertatu. Broussain adiskideari zera idazten dio 1914.eko urriaren 30ean: “Urlo operaren ilorrak 27.000 libera sakeletik aterarazi dizkit eta dirutza andi ori arrebak, beren diru paperak salduz, aurreratu didate”. Arreba horiek ziren Sol Azkue Ozerin (1855-1937) Lekeition maistra zena, Aurora Azkue Aberasturi (1860-1937) hau ere maistra Bilbon eta Diana Azkue Aberasturi (1868-1934) Bilbon etxeko lanekin arduratzen zena. Sol hil zenean, ekainaren 23an, Resurreccion Maria abadea izan zen hamabost neba-arrebetatik bizirik geratu zen bakarra. Eta denetatik bat bakarra ere ez zenez ezkondu, hor geratu zen moztuta Lekeitioko Azkue familiaren leinua.

Argitaratu gabeko kantuen artean badaude beste batzuk han hemenka azaltzen zaizkigunak. Esate baterako *Vizcaytik Bizkaira* zarzuelatxoaren oboerturan (1895) diosku Azkuek berak sartu zuela “una cancioncita popular lequeitiana”. Bruselan musika ikasten zegoela (1907) zera dio: “Mi último ejercicio de contrapunto (lo hice) sobre una canción popular de Lequeitio, ‘Itsu gaisoa’”, gero Kantutegian argitaratu zuena 847 zenbakiarekin, Ursula Torrerri entzundakoa.

Euskaltzaindia sortu zenean bukatu zen lehen aipatu dudana Azkueren bizitzaren bigarren herena, Bilboko euskal katedra irabaztearekin hasi zena. Garai honen azken lau urteetan, lehen munduko gerra zela eta, murriztu egin behar izan zituen Azkuek iparraldekoekin harremanak eta bi proiektu nagusiak amaituak zituenez, hots, Hiztegia eta musika arloan kantu bilketa eta bi operak, lasaiago ekin zion ekoizpen literario propioari. *Latsibi* eleberria, gehiena behintzak, ordukoa da. *Ardi galdua* gerturidiaren hitzaurrea Lekeition sinatu zuen 1918.eko irailaren 20an. *Aitaren bildur* antzerkia 1917an argitaratu zuen. Lexikografia arloan ere lan egiteko parada izan zuen bi hiztegitxo argitaratuz 1916an: *Diccionario de bolsillo. Vasco-español y español vasco eta Diccionario español-vasco*, neurri handiagokoa azken hau, baina hasi baino ez zuena egin A letra bakarrik kaleratuz.

Aurreko lerroetan bi izan ditut lanaren helburu nagusiak: biografietan azaltzen ez diren bizitza eta lanen xehetasunak ematea eta, Lekeition gaudez, Azkueren jaioterriarekin zerikusirik daukaten datak eta datuak entzuleoi eskaintzea. Orain datorkigun hirugarren eta bizitzaren azken herena uzta biltzeko sasoi delako esango nuke. Baina hori baino gehiago egiten du 55 urtekin euskaltzainburu izendatuko apaizak Akademiaren lana zuzenduz eta euskaltzainen lanak bultzatuz. Uztaro oparoa eta luzea datorkio Azkueri, asko baitira eskuetan ikertzeko dituen gaiak. Hor daude, beste askoren artean, Aezkera mintzaira (1927), Batsunera bidean (1928) Altuberekin eztabaidatu zuena, Erronkariko euskara (1931), *Gipuzkera Osotua* (1935), eta abar luzea. Baina bi lan haundi eta garrantzitsuak burutu zituen garai hartan: *Morfología Vasca* (1925) ia mila orrialdeko liburua, eta hori burutzeko herriz herri galdezka aton-

du zuen *Erizkizundi irukoitza*; eta bigarrena, *Euskalerraren Yakintza*, lau liburu-  
kita argitaratu, eduki hauekin:

1. Oitura ta sineskeriak
2. Ipuin irakurgaiak
3. Atsotitzak. Esakerak. Aurren izkuntza, e.a.
4. Erri otoitzak. Erri olerkiak. Ostagikindea, e.a.

Lehen liburukia 1935ean kaleratu zen eta azkena 1947an, beraz, Azkue bizi zela. Gero beste bi argitalpen egin dira, azkena Euskaltzaindiak 1989an argitaratua. Asko dira egiten dituen Lekeitioko aipamenak, hemen bildutako ohiturak, sineskeriak, gertakizunak eta abar lau liburuetan azalduz. Jar ditza-  
gun adibide batzuk:

Trumoiak. “Lekeition trumoi-egunetarako kandelak eta arrastak eurak bedeinkatuak izaten ziraan”. “Lekeition hau esaten da: Santa Barbara, Santa Kruz, Yauna balia zakiguz; inozenteen ogia, Yauna, miseriakordia” “Trumoi egu-  
netan elizpera konjuruak egitera yoaten zan abadeak sakadiz yantzi oi eban bere oinetako bat, deabruak abadea bera eroan ezegian” “Lekeition, ni baino lentxoagoko mutil txikiak konjuru-egunetan, elizpera yoaten ziran, antxe abadearen zapata bat aidean ikusiko ebela-ta.

Arimak. Txikitan, mutikoak yolasean ari ginanean (kaniketara, parratean naiz yokoren batean) eskutik zerbait yautikitzean “arimak” esaten genuan, Purgatoriotik guri berak lagun egin zekiguten”

Hiletak. “Lekeition orain ogei bat ureterarte izen onek eukezan: *zortzikoa*, *laukoa* ta *batekoa*. Zortziko gorpulorreen lau serorak zortzi kandela eroaten ebezan zerraldo aurrean, bakoitzak bi; lauko gorpulorreen lau argi, serora biren artean; bateko gorpulorreen serora batek kandela bat eroaten eban. Gorpua etxetik atera baino lentxoago gizonak banan banan bertara yoaten dira, zerraldo aurrean Aita gurea bana errezatzer. Bigarren oitura au lenengoaren antzera kendu gura izan eban norbaitek, gizonak gorpu atzetik burutsik yoatea bere bai. Zori onean oitura zar ederrok gorde al izan doguz”. “Yakingai onen geigarritzat Lekeitioko oitura zar zar batzuk ezagutzea ontzat artuko edodau irakurleak: ‘Ordenanzas de Lequeitio’ izentzat ezarrita 1486-garren urtean paperetan ezarri ebezan ordurarte gizaldi askotan buruz artuta gorderiko 184 agindu...”

Hilekin mintzatu. “Lekeition 1874-garren urtean Carlos de Borbon y Austria de Este, lenengoz agertu zan egunean, bera ikusi ta yarrain atsotxo bat ilerrietara yoan zan, an zetzan bere adiskide bati barri pozgarria yakin arazotera. Bere itz gitxi gelditu dira orduko Lekeitiarren gomutan. Bere obira eldu zanean, oiñaz bea yota esan eutsan: Mari Antoña Keletonena: Don Karlos etorri dona. ¡Gizon onen ederra!”

Kanpaiak. “Lekeition gaur sei dira emakume il baten txilin-otsak, gizon batenak zazpi. *Ortzuri* deritxon nire opera zarrenean, lagunik agiriarenak (zoro-



rik) il-kanpaea entzueran auxe dirautse: txilin, gezurrik mingainean eztuzuen txilin ozenok, esan niri jarren! gizon ala emakume den hil dena”

**Aldaztorrea.** Debako Alostorrearen ipuia aspalditik ezaguna zen Azkuek Kantutegian bilduta zeukanerako. Honako hau idatzi zuen gero: “Lekeitioko mazmarrodun etse batek eukan izentzat Aldaztorre. Uriondo ondoan aldatz baten ganean egoan bera. ...Emakume bik zerbait irakatsi eusten: Zarrenak (Klara Iñurri zan bera) auxe baino ez: ‘Aldaztorrean nengoanean irra goruetan, erroi zarra etorri datan grauetan’. Klararen erran Guillerma Akarregigandik irakurgai eder bat ikasi neban, musika ta guztikoa” Irakurgai hau luzea denez, irakurri nahi duenak jo beza bigarren tomora, 34 orrialdetik aurrera.

**Ezteiak.** Ondo bereizten ditu Azkuek ezkontza eta ezteiak. Hauek dira orain ere Lekeition abuztuan jai giroan egiten direnak. Auxe da Azkuek dioskuna: “Lekeition arrea erakustorduan, auxe esaten zan: ‘Amabi atorra daukaz, soiñean be eztago ain bagarik; zazpi daukaz soiñean be...’ eta abar. Amen guztiak eta geiago balio dabena” “Au esanda emaztegaia aurkeztua izaten zan”

**Kaxarranka.** Dantza honi buruz luze ari da Azkue lehen tomoaren 134-136 orrialdeetan. “Nik Lekeitioko itz au beti onelantxe entzun dot, batzun belarrietan kaxarrenka izanarren” Dantza honek aldaketak izan zituela 1903an diosku Azkuek eta berak esandakoez gain aipatzen ditu bi lan, RIEV aldizkarian 1927an argitaratuak: egileak, Juan Irigoyen eta Juan Bautista Eguzkitza. Beraz, nahi duenarentzat, badago zer irakurri.

Ez nuke amaitu nahi zera esan gabe: Azkuek beti maite izan zituela bere jaioterria eta herrikideak. Harro sentitzen zen lekeitiarra izatearekin. Abuztuaren 5ean, jaiotza eguna ospatuz, hasten zituen oporrak Lekeition ia inoiz utzik egin barik. Dakizuenez, 1951.eko urriaren 22an, iluntzean, lana amaitu ondoren etxera zihoala, Ibaizabal errekarara erori zen eta hesteritisekin azararen 9an hil. Ur zikinetatik salbatzera hurbildu zitzaion Fernando Voz Peñari esan omen zion: “Ken, ken; uger egiten badakit, Lekeitiokoa naiz eta”. Jaiozenetik hil arte, Azkue lekeitiarra.